

ALDIZKARIAN ARGITARATU

Bat Soziolinguistika Aldizkarian artikulua argitaratu nahi izanez gero, jarraitu ondorengo urratsak:

1.1 ARTIKULUEN IDAZKERA ARAUAK

Artikuluaren gaiak

- Euskal soziolinguistikaren esparruko ikerketa-lanak
- Euskararen biziberritze-prozesura hurbiltzen diren beste diziplinetako ikerketa-lanak (antropologia, psikologia, komunikazioa e.a.)
- Euskararen normalizazioa eta hizkuntza-plangintza
- Euskal soziolinguistika saileko saiakerak
- Nazioarteko soziolinguistikaren arloko ikerketak

Artikuluaren luzera eta egitura

- Luzera: 20.000-30.000 karaktere bitartekoa, zuriuneak barne.
- Egitura:
 - Izenburu-orria:
 - Artikuluaren egile guztien informazioa: izena eta bi abizenak, afiliazioa(k) eta helbide elektronikoa(k)
 - Laburpena: gehienez 1000 karaktere.
 - Hitz-gakoak: 4-5 hitz.
 - Testu nagusia (azpi-atalak eta izenburuak adierazi):
 - Sarrera
 - Marko teorikoa edota testuingurua
 - Metodologia
 - Emaitzak
 - Ondorioak
 - Eskertzak (Beharrezkoa bada)
 - Bibliografia
 - Eranskinak (Beharrezkoa bada)
- Euskara batuaren arauen arabera zuzenketa ortografikoa errespetatu (Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzea gomendatzen da).
- Ez da onartuko idazkera diskriminatzailearik. Ezin da kontzeptu sexistarik edota arrazistarik erabili.

Artikuluaren hizkuntza

- Artikuluak euskaraz argitaratuko dira, eta horrela bidaltzea eskatuko da.
- Artikuluaren laburpena eta hitz gakoak euskaraz eta ingelesez argitaratuko dira. Egileak aukera izango du atal horietako ingeleseko itzulpenak igortzeko; gainerakoan editore-taldea arduratuko da eginkizun horretaz.

1.2 ESTILOARI BURUZKO GIDALERROAK

- Letra tipoa:
 - Testu-gorputza: Times New Roman 11, lerroarte 1,5
 - Lehen mailako izenburuak: letra lodiz, Times New Roman 14
 - Bigarren mailako izenburuak: letra lodiz, Times New Roman 12
 - Hirugarren mailako izenburuak: letra etzanaz, Times New Roman 12
- Amaiera-oharrak: ohar bakoitza zenbakituta, eta oharren zerrenda osoa artikuluaren amaieran denak batera eman.

Erreferentziak eta aipuak

- Aipuak:
 - Egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea parentesi artean, komaz bananduta: (Odriozola, 1998).
 - Bi egile direnean bi deiturak eta lokailuarekin bereiziko dira: (Suay eta Sanginés, 2010).
 - Hiru egiletik gora direnean, lehen aldiz, egile guztien abizenak jarriz, eta, ondoren, (et al.) idatziko da letra arruntez: (Martí et al. 2005).
 - Aipu laburrak: "komatxo" artean testuan bertan jasota: [...] (Altuna, 2017).
 - Aipu luzeak: aparteko pasartean idatziko dira. Amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarrita: [...]. (Altuna, 2017)
- Bibliografia:
 - Liburuak: Egile(ar)en abizenak maiuskulaz eta izen osoa(k); bat baino gehiago izanez gero, komaz bananduta. Argitaratze-urtea parentesi artean eta puntua. Izenburua letra etzanaz idatzia, argitalpen hiria eta argitaletxea.

- ESTEBAN, Mari-Luz (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Susa-Lisipe.
- Liburu kapituluak: Egile(ar)en abizenak maiuskulaz eta izen osoa(k); bat baino gehiago izanez gero, komaz bananduta. Argitaratze-urtea parentesi artean eta puntua. Kapituluaren izenburua komatxoan artean, *in* lokailua, liburuaren editorearen abizena (Ed.) aipamenarekin eta izenburua, eta kapituluaren orrialde zenbakiak. Argitalpen hiria eta argitaletxea.
 - COYOS, Jean-Baptiste (2010). "Hizkuntza-ukipena", in Zarraga (Ed.) *Soziolinguistika eskuliburua*, 135-182. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Artikuluak: Egile(ar)en abizenak maiuskulaz eta izen osoa(k); bat baino gehiago izanez gero, komaz bananduta. Argitaratze-urtea parentesi artean eta puntua. Izenburua komatxoan artean, aldizkariaren izena letra etzanez, zenbakia eta orrialde zenbakiak, argitalpen hiria eta argitaletxea.
 - ZALBIDE, Mikel (2015). "XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan", *Hermes* 50, 10-29. Bilbo: Sabino Araba Fundazioa.
- Interneteko dokumentuak: Egilearen abizenak maiuskulaz, izena (argitalpen-urtea), dokumentuaren izena, url-a eta kontsulta-data (urtea-hilabetea-eguna).
 - AGIRRE, Lorea (2015). "*Euskara partekatzen duguna*" 19. Korrikako mezua. <http://topagunea.eus/euskara-partekatzen-duguna/> [Azken kontsulta: 2019-10-05]

Ilustrazioei buruzko gidalerroak

- Irudiak, taulak eta grafikoak zenbaki korrelatiboetan, izenburuarekin eta iturria adierazita bidali behar dira; egileak sortua bada, "Iturria: Egileak egin" ezarriko da.
- Idazlana zuri-beltzean argitaratuko da. Taulak, grafikoak, irudiak eta bestelakoak horretarako egokitu behar dira.

1.3 ARGITALPEN-PROZEDURA

Idazlana Egileentzako Gidalerroen arabera prestatu dela ziurtatzean, materiala bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus helbide elektronikora bidali behar duzu.

Bi euskarri elektronikotan bidaliko da lana: DOC(X), ODT edo RTF formatuetan eta PDF bertsioan. Horrez gain, idazlanean ilustrazioen bat txertatu bada (taulak, grafikoak, irudiak edota bestelakoak), ahalik eta kalitate handienarekin eta jatorrizko formatuan bidali behar dira horiek (jpg, xls, odp...).

Argitalpen-agiria

Idazlana editore-taldeari helaraztean, argitalpen-agiria sinatuko du(te) egilea(e)k, Bat Soziolinguistika Aldizkariaren argitalpen-eskubideak onartu dituela adierazteko.

Ebaluazioa

Bat Soziolinguistika Aldizkarian argitaratzen diren lanak gutxienez bi ebaluatzailek baloratuko dituzte: Argitalpen Batzordeko kide batek eta kanpo-ebaluatzaile batek.

Ebaluatzaileek beharrezko ikusiz gero, editore-taldeak hainbat zuzenketa egiteko iradoki diezaioke egileari.

Behin zuzenketa horiek eginez gero artikulua behin betiko testua maketatu egingo da. Egileak artikulua maketaren gainean azken berrikusketa egiteko aukera izango du, betiere zuzenketa txikiak egin daitezkeela kontuan hartuz.

Epeak

Aldizkariaren editore-taldearen eta egilearen artean adostuko dira lana eskuratzeko eta berrikusteko epeak; betiere, Bat Soziolinguistika Aldizkariaren urteko egitasmoaren kronograma kontuan hartuta.

Aldizkarian argitaratzeari buruzko bestelako zalantzarik edukiz gero, jarri harremanetan editore-taldearekin: bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus